

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak % 4,6 hazi ziren 2003ko laugarren hiruhilekoan

Datu horiekin, 2003. urtean metatutako hazkunde nominala % 4,7koa da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta gehiago izan zuen 2003ko laugarren hiruhilekoan (% 4,6ko gehikuntza), aurreko urteko aldi berean baino, kopuru nominaletan, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal horrek, kopuru errealetan, % 2,6ko urte arteko bilakaera dakar, hori ere positiboa.

2003. urtean metaturiko gehikuntza % 4,7koa da kopuru nominaletan; eta % 2,6koa, berriz, behin prezioen igoeraren eragina kenduta.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2001	IV	-1,9	-2,7	0,0
2002	I	3,3	5,4	-0,3
	II	3,2	3,9	1,9
	III	9,6	12,0	4,7
	IV	6,5	8,4	3,3
2003	I	4,2	4,7	3,0
	II	1,8	1,8	1,8
	III	1,9	1,8	2,1
	IV	2,6	3,0	1,9

Iturria: EUSTAT

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak % 4,2 gehitu dira 2003ko laugarren hiruhilekoan, 2002ko aldi beraren aldean. Gehikuntza nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, % 3koa dugu, kopuru errealetan.

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) % 5,6ko hazkunde nominala izan du laugarren hiruhilekoan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza % 1,9koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2003. urte osoan, tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak % 4,1 gehitu dira 2002. urtearen aldean. Gehikuntza nominal hori, behin prezioen inflazio-eragina kenduta, % 2,9koa dugu, kopuru errealetan.

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) % 5,8ko bilakaera positiboa izan du, kopuru nominaletan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko aldakuntza hori % 2,2koa da, kopuru konstanteetan neurtuta.

Lurralde historikoka, txikizkako sektoreko salmenta nominalen hazkunderik handiena, urte honetako laugarren hiruhilekoan, Bizkaian gertatu da. Izan ere, % 5,0ko urte arteko hazkundera izan dugu hor, txikizkako salmenta ez-espezializatua gehiago hazi delako. Ondoren, Gipuzkoa dator, indize orokorrak % 4,3ko aldakuntza positiboa izan baitu; Arabak, oster, hazkunde neurritsuagoxea izan du, % 3,9koa. Kopuru errealean, % 3,1eko gehikuntza izan da Bizkaian, % 2,1koa Gipuzkoan, eta % 2,0koa Araban.

2003ko laugarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunei dagokienez, Euskal AEn % 2,6ko urte arteko gehikuntza izan da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Joan den abenduaz geroztik enpleguak % 2,1 egin du gora, lurralde bakoitzean bilakaera hau izanda: Gipuzkoan % 2,4; Bizkaian % 2,1; eta Araban % 1,2.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Nerea Linaza

Tel.: +34-945 017 505. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es